También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos.

(https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos)

3. En lo no previsto en este decreto en cuanto a procedimiento administrativo, será de aplicación supletoria la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y, en su defecto, las normas de derecho privado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

27. oinarria. *Diruz lagun daitezkeen gastuen irizpide orokorrak.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.

2. Ez da onartuko diruz lagun daitezkeen gastuen eskuratze-kosturik baldin eta merkatuko balioa baino handiagoa bada.

Base 27. *Criterios generales de gastos subvencionables.*

1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos que, estando correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

2. No se admitirán costes de adquisición de gastos subvencionables que sean superiores al valor del mercado.

28. oinarria. *Dirulaguntzarik jasoko ez duten gastuak.*

Edozein kasutan, ez dute dirulaguntzarik jasoko honako gastu hauek:

1. Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe identifikatu ezin diren gastuak.

2. Entitate lokalaren barne-kostuak, partaidetza-prozesuarekin zerikusia dutenak (jasandako BEZa barne, jasanarazi beharrekoa izan ala ez).

3. Menpeko nahiz loturiko entitateek emaniko zerbitzuak, zerikusia dutenak partaidetza-prozesuarekin.

4. Partaidetza-prozesua garatzeko softwarea edo aplikazioak erostea edo alokatzea.

5. Material inbentariagarriaren gastuak eta partaidetza-prozesuarekin lotutako inbertsioak.

6. Partaidetza-dinamiketan parte hartzen duten erakundeei eta/edo pertsonei ematen zaizkien edozein motatako opariak.

7. Catering- eta otordu-gastuak.

Base 28. *Gastos no subvencionables.*

En cualquier caso, no serán gastos subvencionables:

1. Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención.

2. Costes internos de la entidad local relacionados con el proceso participativo (incluido el IVA soportado sea o no repercutible).

3. Servicios prestados por entidades dependientes o vinculadas, relacionados con el proceso participativo.

4. Adquisición o alquiler de software o aplicaciones para el desarrollo del proceso de participación.

5. Gastos de material inventariable e inversiones relacionadas con el proceso participativo.

6. Cualquier tipo de obsequio que se dé a las entidades y/o personas que tomen parte en las dinámicas participativas.

7. Los gastos de catering y ágapes.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

29. oinarria. *Aurrekontu-muga.*

Dirulaguntza jasotzeko aurkezten direnetatik, bakarrik hautatu ahal izango dira laguntzetarako ezarri den aurrekontuak uzten duen beste eskaera.

30. oinarria. *Dirulaguntzen bateragarritasuna.*

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak xede bererako ematen diren beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta Estatuko, Europar Batasuneko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emanak badira. Baina kontuan hartu beharko da beste dirulaguntza horiek arautzen dituen araudiak horren inguruan ezartzen duena.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, inola ere ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

31. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publikotasuna.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko dirulaguntzak, honako hauek adieraziz: deialdia, zein programa eta aurrekontu-kredituri egozten zaizkion, erakunde onuraduna eta diruz lagundutako proiektua.

32. oinarria. *Emandako dirulaguntzaren zabalkundea.*

1. Foru-dekretu honen babesean emaniko laguntzen onuradun gertatzen diren eskaerek, diruz lagundutako jardueren zabalkunde-ekintza guztietan, Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako laguntzaren berri eman beharko dute, Dirulaguntzen Foru Arauaren 17.3 artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Aintzat harturik zer ezartzen duen bere 13.3. eta 13.4. artikuluetan Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuak, zeinaren bidez ezartzen baitira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, dirulaguntza jasotzen duten entitateek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako

Base 29. *Límite presupuestario.*

De las solicitudes presentadas únicamente podrán ser seleccionadas tantas como permitan las disponibilidades presupuestarias consignadas al efecto.

Base 30. *Compatibilidad de subvenciones.*

1. Las subvenciones concedidas por la Administración Foral son compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

2. El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Base 31. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Se publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia» las subvenciones definitivas concedidas, con expresión de la convocatoria, programa y crédito presupuestario al que se imputan, entidad beneficiaria y proyecto subvencionado.

Base 32. *Difusión de la subvención concedida.*

1. Las solicitudes que resulten beneficiarias por ayudas concedidas al amparo del presente decreto foral, en todas las acciones de difusión de las actuaciones subvencionadas deberán dar publicidad del apoyo recibido de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con lo indicado en el artículo 17.3 de la Norma Foral de Subvenciones.

2. De acuerdo con lo establecido en el artículo 13.3 y 13.4 del decreto foral 63/2019, de 28 de mayo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales, las entidades beneficiarias de la ayuda deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jardueraren barruan egindako agerpen publiko orotan. Halaber, entitate onuradunek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte herritarrei beren jardueraren berri emateko egiten dituzten liburuxka, kartel edo bestelako guztietan.

subvencionada. Igualmente, en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por las entidades beneficiarias para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse en las dos lenguas oficiales.

IV.TITULUA

Dirulaguntzak emateko prozedura

33. oinarria. *Dirulaguntza emateko prozedura.*

1. Foru-dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzak emateko prozedura lehia-konkurrentzia izango dira.

2. Lehia-konkurrentzia dirulaguntzak emateko prozedura bat da, zeinaren bidez, aurkeztu diren eskabideak konparatu, eta, aurretik ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera, lehentasun-hurrenkera bat ezartzen baita, puntuazio handiena lortu dutenei adjudikatzeko dirulaguntzak, erabil daitekeen kredituaren arabera.

3. Kreditu erabilgarriaren barruan aurrekontua mugatuz gero, eta puntuazioa berdina bada, eskabideak zer hurrenkeratan aurkeztu diren hartuko da kontuan.

4. Eskabide batek ez baditu betetzen foru-dekretu honen 1. eta 5. artikuluek ezartzen dituzten baldintzak, eskabide hori ez da onartuko.

5. Aurrekontuko partidan erabilgarri dagoen kreditua agortzen bada, ezetsi egingo dira eskaerak.

34. oinarria. *Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak.*

1. Espedienteen antolamendua, instrukzioa eta ebaluazioa Aholkularitza Teknikorako Atalak egingo du, Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiaren mende.

2. Espedienteak ebaztea Herri Administraziorako

TÍTULO IV

Procedimiento de concesión de las subvenciones

Base 33. *Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones reguladas en este decreto será el de concurrencia competitiva.

2. Se entiende por concurrencia competitiva el procedimiento por el que la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración fijados y adjudicar, dentro del crédito posible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración.

3. En caso de limitación presupuestaria dentro del crédito disponible, en caso de coincidencia de puntuación, se tendrá en cuenta el orden de presentación de solicitudes.

4. Procederá la inadmisión de la solicitud cuando se incumplan los requisitos establecidos en las bases 1 y 5.

5. Procederá la desestimación de la solicitud por haberse agotado el crédito disponible en la partida correspondiente.

Base 34. *Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.*

1. La ordenación, instrucción y evaluación de los expedientes se llevará a cabo por la Sección de Asesoramiento Técnico, bajo la dependencia de la Dirección General de Buen Gobierno y Atención Ciudadana y Servicios Digitales.

2. La resolución de los expedientes competerá al

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren eskumena izango da, Aholkularitza Teknikorako Atalak eta Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko titularrak proposatuta.

3. Aholkularitza Teknikorako Atalak egiaztatu egingo du entitate onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren.

4. Ebaluazioa egin ondoren Aholkularitza Teknikorako Atalak txosten bat egingo du eta ebazpen-proposamena igorriko du. Proposamen horrek dirulaguntzetarako eskabideen zerrenda jasoko du (onartuak izateko baldintzak betetzen dituztenen zerrenda, alegia); zerrenda hori lortutako puntuen arabera ordenatuta egongo da. Horrez gainera, ezesteko diren eskabideen zerrenda ere jasoko du; zerrenda horretan adieraziko da zergatik ezetsi diren eskabide horiek.

35. oinarria. *Gastuen doikuntza.*

Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Atalak uste badu gastu-aurrekontua gehiegizkoa dela izaera bereko gastuen batez besteko kostuarekin alderatuta, murriztu egin dezake dirulaguntza-oinarria, bere ustez doia eta neurrikoa den gastuari dagokion zenbatekoan.

36. oinarria. *Ebazpen-epea.*

1. Eskabideak ebazteko gehieneko epea sei (6) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Aurkeztutako eskabide guztiei beren-beregiko ebazpena emateko eskumena duen organoak ebazpena eman behar badu ere, ebazpena eta jakinarazpena emateko epea iraungi eta beren-beregiko ebazpena eman ez badu, eskabidea administrazio isilbidez baztertu egin duela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales a propuesta de la Sección de Asesoramiento Técnico, y de la persona titular de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales.

3. La Sección de Asesoramiento Técnico, comprobara el cumplimiento de los requisitos establecidos para adquirir la condición de entidad beneficiaria.

4. Una vez efectuada la evaluación por parte de la Sección de Asesoramiento Técnico, emitirá un informe y elevará la propuesta que contendrá un listado de solicitudes de subvención que cumplan las condiciones necesarias para ser aceptadas, ordenadas por orden de puntuación obtenida, y un listado de las solicitudes cuya desestimación se propone, junto con la causa de dicha desestimación.

Base 35. *Ajuste de gastos.*

Si la Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales considera que el presupuesto de gasto es excesivo en comparación con el coste medio de gastos de análoga naturaleza, podrá reducir la base subvencionable en la cuantía correspondiente a lo que se considera un gasto ajustado y proporcionado.

Base 36. *Plazo de resolución.*

1. El plazo máximo para la resolución de las solicitudes será de seis (6) meses a contar desde el día siguiente de la finalización de la presentación de solicitudes.

2. Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa a todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, esta no se hubiere dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme a lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

37. oinarria. *Ebazpenaren edukia eta jakinarazpena.*

1. Ebazpenean, zerrenda batean jasoko dira, batetik, dirulaguntza emango zaien entitateak eta, bestetik, gainerako eskaeren ezespen espresua.

2. Ebazpen horretan, zerrenda batean ordenatuta agertu ahal izango dira oinarri arautzaileetan entitate onuradun izateko zehazten diren baldintza administratibo eta tekniko guztiak bete arren deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu delako onartu ez diren eskaera guztiak, eta deialdian ezarritako balorazio-irizpideen arabera bakoitzari eman zaion puntuazioa adieraziko da.

3. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.3. artikuluak dioen bezala.

4. Horrez gainera, eskaera egiten duen entitateari ere jakinaraziko zaio ebazpena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulutik 42. artikulura xedatutakoaren arabera.

38. oinarria. *Errekurtsoak.*

1. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

2. Era berean, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako eran.

Base 37. *Contenido y notificación de la resolución.*

1. La resolución contendrá la relación de las entidades solicitantes a las que se concede la subvención y la desestimación expresa de las restantes solicitudes.

2. La resolución podrá incluir una relación ordenada de todas las solicitudes que, cumpliendo con las condiciones administrativas y técnicas establecidas en las bases reguladoras para adquirir la condición de entidad beneficiaria, no hayan sido estimadas por rebasarse la cuantía máxima del crédito fijado en la convocatoria, con la indicación de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos en la misma.

3. Esta resolución será publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 45.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

4. Asimismo, la resolución se notificará a la entidad solicitante de conformidad con lo dispuesto en los artículos 40 a 42 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Base 38. *Recursos.*

1. La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante el diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la correspondiente notificación, en los términos que establece la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la correspondiente notificación, en los términos contemplados por la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ezingo dira errekurtso biak aldi berean jarri.

No será posible simultanear ambos recursos.

39. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

Base 39. *Renuncia de la subvención.*

1. Uko egiteko gehieneko epea 10 egun baliodunekoa izango da, ebazpena erakunde interesdunari jakinarazten zaionetik aurrera. Epe hori igarota, uko egite oro dirulaguntza emateko baldintzak ez betetzetzat joko da.

1. El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de 10 días hábiles desde la notificación de la resolución a la entidad interesada. Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

2. Erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak hurrengo erakunde eskatzaileei dirulaguntza ematea erabaki dezake, puntuazioaren arabera, betiere kasuan kasuko eskabideei erantzuteko kreditu nahikoa liberatu bada.

2. En caso de renuncia a la subvención de alguna de las entidades beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a la entidad o entidades solicitantes siguientes en orden de puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

3. Laguntza ematen duen organoak aukera horren berri jakinaraziko die erakunde interesdunei, dirulaguntza 10 eguneko epe luzaezinean onar dezaten. Epe hori igaro eta berariazko adierazpenik egin ez bada, isilbidez onartutzat joko da.

3. El órgano concedente notificará esta opción a la entidad o entidades interesadas, a fin de que acepten la subvención en el plazo improrrogable de 10 días. Transcurrido dicho plazo sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada.

40. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

Base 40. *Notificación electrónica.*

1. Entitate interesdunentzako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

1. Las notificaciones a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 40 y siguiente de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan agertuz egingo dira (www.ebizkaia.eus), araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

2. Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (www.ebizkaia.eus) de conformidad con lo establecido en el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo de Administración Electrónica, así como con la Orden Foral de la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales 4841/2016 de 6 de junio, sobre la práctica de las notificaciones y comunicaciones por medio del sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

41. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

1. Organo eskudunak prozeduraren ebazpena jakinarazi ondoren, hamar eguneko epea izango da ebazpena onartzeko. Epe hori igaro eta esanbidezko adierazpenik egin ez bada, isilbidez onartutzat joko da. Ebazpena jakinarazi eta hamar egun igaro bezain laster, ordainketa izapidetuko da.

2. Ez zaie bermerik eskatuko erakunde onuradunei onarturiko dirulaguntzak ordaintzeko.

3. Dirulaguntzaren betebeharra aitortu eta hura ordaindu aurretik, egiaztatuko da erakunde onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak, zuzenbide publikokoak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta berdin jarraituko dute dirulaguntza ematen denean, betebeharra aitortzen denean eta ordaintzen denean.

Base 41. *Pago de la subvención.*

1. Notificada la resolución del procedimiento por el órgano competente se dispondrá de un plazo de diez días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada. Inmediatamente al transcurso de diez días tras la notificación de dicha resolución, se procederá a tramitar el abono de la misma.

2. El abono de las subvenciones concedidas se realizará sin exigir garantías a las entidades beneficiarias.

3. Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y frente a la Seguridad Social, circunstancia esta que deberá mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago.

V.TITULUA

Dirulaguntzen gestioa eta justifikazioa

42. oinarria. *Justifikazio-epea.*

1. 2028ko apirilaren 7a da egindako gastuei buruzko dokumentazioa eta haiei buruzko fakturak eta ordainagiriak aurkezteko azken eguna.

2. Ezarritako justifikazio-epea amaitu eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, erakunde onuradunari eskatuko zaio aurkez dezala dokumentazio hori hamabost (15) egun baliodunen epe luzaezinean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Justifikazioa ez bada aurkezten ezarritako epean, dirulaguntza itzultzeko eskatuko da, eta Dirulaguntzen Foru Arauan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Izan ere, foru-arau horretan arautzen da Foru Administrazioak emaniko dirulaguntzen araubide juridiko orokorra.

TÍTULO V

Gestión y justificación de las subvenciones

Base 42. *Plazo de justificación.*

1. La fecha límite para la presentación de la documentación relativa a los gastos realizados y sus correspondientes facturas y justificantes de pago es el 7 de abril de 2028.

2. Trascurrido el plazo establecido de justificación sin haberse presentado la misma, se requerirá a la entidad beneficiaria para que, en un plazo improrrogable de quince (15) días hábiles, contados a partir del día siguiente en que tenga lugar la notificación, sea presentada.

3. La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en la Norma Foral de Subvenciones, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

43. oinarria. *Dirulaguntza justifikatzeko behar den dokumentazioa.*

Erakunde onuradunek, lehen aipatutako epean, justifikatuko dute diru-laguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak eta aurreikusitako helburuak bete direla, justifikazio-kontuaren modalitatearen bidez. Justifikazio-kontuak honako agiri hauek izango ditu:

I. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, non egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak adierazten diren.

II. Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren Erregelamenduaren 57.2 artikuluan jasotako edukiarekin.

III. Ordainketen fakturen eta egiaztagirien kopia.

2027ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitarteko fakturak baino ez dira onartuko (biak barne). Ordainagiriak 2027ko abenduaren 31 baino geroagokoak izan daitezke.

Base 43. *Documentación necesaria para la justificación de la subvención.*

Las entidades beneficiarias justificarán, en el plazo señalado anteriormente, el cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención mediante la modalidad de cuenta justificativa. La cuenta justificativa contendrá la siguiente documentación:

I. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

II. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas con el contenido recogido en el artículo 57.2 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones.

III. Copia de las facturas y justificantes acreditativos del pago de las mismas.

Serán únicamente admisibles las facturas con fecha entre el 1 de enero de 2027 y el 31 de diciembre de 2027 (ambas incluidas). Los justificantes de pago podrán tener fecha posterior al 31 de diciembre de 2027.

44. oinarria. *Informazio osagarria eskatzea.*

Entitate onuradunek nahitaez eman beharko dute Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Atalak beren eskabidea dela-eta eskatzen dien informazio guztia, eta atal horri jakinarazi beharko diote zeinahi inguruabar dirulaguntza ematean kontuan harturiko baldintzak aldatzen dituena, bai eta beste dirulaguntzaren bat edo batzuk eskuratzen badituzten xede bererako.

Base 44. *Requerimiento de información complementaria.*

Las entidades beneficiarias tendrán la obligación de facilitar cuanta información les sea requerida por la Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales con relación a la solicitud presentada, así como de poner en conocimiento de la citada sección cualquier circunstancia que suponga una alteración de las condiciones tenidas en cuenta en la concesión de la subvención y la obtención de otras ayudas o subvenciones públicas por la misma finalidad.

45. oinarria. *Gastu-kontratazioaren erregelak.*

1. Diruz laguntzen diren proiektuetako jardueren %100eraino azpikontratatu ahalko da, baldin eta 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta

Base 45. *Reglas de contratación del gasto.*

1. Se podrá subcontratar hasta el 100% de las actividades que integren los proyectos subvencionados siempre y cuando se respeten los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Dirulaguntzen Erregelamenduko 53. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatzen badira.

2. Eskatzailea ez den beste batek egiten badu diruz lagunduriko jarduera nahiz haren parte bat, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean ezarritakoa beteko da.

3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Arauan xedatutakoaren arabera, kontratatzen diren jarduketetan, lege-arau horiek ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dira, genero-ikuspegiaren arabera egokitu lanaren barruko estatistikak, hizkera sexistarik ez erabili, eta bermatu emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua dela eratzen diren batzorde eta lantaldeetan.

46. oinarria. *Ebazpena aldatzea.*

1. Aldaketarik gertatuz gero dirulaguntza ematean aintzat harturiko inguruabarren batean (objektiboa izan zein subjektiboa), entitate onuradunek nahitaez eman beharko diote aldaketon berri Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Teknikorako Atalak

2. Dirulaguntza ematen duen organoak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateari buruzko ebazpena, interesdunari entzun ostean eta funtsak erabili aurretik, baldin eta, ikusirik aldatu egin direla dirulaguntza emateko kontuan harturiko baldintzak, oztopatu edo eragotzi egiten bada lortu nahi zen interes publikoa lortzea eta ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten entitate onuradunari.

3. Diruz lagundutako jarduera egiteko epea bukatu aurretik, entitate onuradunek eska diezaiokete laguntza eman duen organoari alda dezala dirulaguntza emateko ebazpena, lehen ezarritako epeak luzatzeko, emandako zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak

requisitos y prohibiciones establecidos en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y el artículo 53 del Reglamento de Subvenciones.

2. Cuando la actividad subvencionada o parte de la actividad subvencionada vaya a ser ejecutada por medios ajenos al solicitante se atenderá a lo descrito en la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

3. En las actuaciones que se contraten, de conformidad con lo previsto en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, deberán respetar los principios generales previstos en las mismas, adecuar las estadísticas que formen parte de su trabajo a una perspectiva de género, realizar un uso no sexista del lenguaje y garantizar una representación equilibrada entre mujeres y hombres en las comisiones y equipos que se constituyan.

Base 46. *Modificación de la resolución.*

1. Las entidades beneficiarias tendrán obligación de comunicar a la Sección de Asesoramiento Técnico de la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales las modificaciones que, en su caso, pudieran producirse en relación con cualquier circunstancia, tanto objetiva como subjetiva, que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

2. El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando, habiéndose advertido una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, éstas impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se causen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

3. Las entidades beneficiarias, igualmente, podrán solicitar al órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de la concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aldatzeko. Laguntzak ematen dituen organoak baimendu egingo ditu halako aldaketak, baldin eta ustekabekoen ondorio badira edo beharrezko badira jarduketa egokiro bukatzeko. Nolanahi ere, ezin izango da aldatu dirulaguntzaren helburu edo xederik, ezta hirugarrenen eskubiderik kaltetu ere. Hori, nolanahi ere, ebazpen espresu bidez egin beharko da. Epeak luzatzeari edo hori ukatzeari buruzko erabakien kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

alteración de las acciones que se integran en la actividad. Dichas modificaciones serán autorizadas por el órgano concedente cuando se deban a circunstancias imprevistas, o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se perjudiquen los derechos de terceras personas. En todo caso deberá realizarse por resolución expresa. Los acuerdos sobre ampliación de plazos o sobre su denegación no serán susceptibles de recurso, sin perjuicio del procedente contra la resolución que ponga fin al procedimiento.

VI.TITULUA

Dirulaguntzak itzultzea eta arau-hauste administratiboak

I.KAPITULUA

Dirulaguntzak itzultzea

47. oinarria. *Ez-betetzeak.*

Honako kasu hauetan, baldintzak ez direla bete ulertuko da: erakunde onuradunek dekretu honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean edo aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez dutenean, bai eta Dirulaguntzen Foru Arauaren 33. artikuluan ezartzen diren kasuetan ere.

48. oinarria. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Foru Administrazioaren aurretiazko inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Foru Administrazioak berandutze-interesak kalkulatuko ditu Dirulaguntzen Foru Arauren 34. artikuluan ezarritakoari helduta, betiere onuradunak itzulketa behin betiko egiten duen unera arte.

3. Entitate onuradunak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili

TÍTULO VI

Reintegro de subvenciones e infracciones administrativas

CAPÍTULO I

Reintegro de subvenciones

Base 47. *Incumplimientos.*

Se considerará que existe incumplimiento, cuando las entidades beneficiarias no cumplan las condiciones establecidas en el presente decreto, o en la resolución de otorgamiento, o las establecidas en las demás normas de aplicación, así como en los supuestos determinados en el artículo 33 de la Norma Foral de Subvenciones.

Base 48. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración Foral.

2. Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración Foral calculará los intereses de demora, de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones y hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la entidad beneficiaria.

3. La devolución de la subvención a instancia de la propia entidad beneficiaria se deberá realizar

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera.

49. oinarria. *Ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak.*

1. Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada, aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako –Dirulaguntzen Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasoa–, itzuli egin beharko da zegokionaren gainetik jasotako kopurua, eta dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio kopuru horri.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuaren gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostu osoa kentzearen ondoriozko finantzaketa publikoan sortutako soberakina.

3. Baldintzak partez betetzeak edota epe barruan jardueraren zati bat soilik gauzatzeak berekin ekarriko dute (egiaztatzen bada erakunde onuradunak bere gain hartutako konpromisoak betetzeko nahia eta asmoa duela) diruaren parte bat itzuli beharra, jatorrizko jardueraren betetze-mailaren proportzioan.

   Justifikatutako gastua aurrekontuko gastua baino txikiagoa dela-eta ebazten bada itzultze-espediente bat, entitate onuradunari jakinaraziko zaio ebazpena, sobera geratutako funtsak itzul ditzan.

   Entitate onuradunak, hala badagokio, jaso dituen baina justifikatu ez dituen kopuruak itzuli beharko ditu, bai eta diruaren berandutze-interesa ere.

4. Foru Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela eta gastuon hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, dirulaguntza jaso dezaketen eta egotzita dauden gastu guztietatik ordaindu gabeko

mediante la correspondiente carta de pago, según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Base 49. *Criterios de graduación de incumplimientos.*

1. En el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral de Subvenciones, procederá el reintegro por la cantidad excedida a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

2. Dado que la subvención concedida se obtiene de la aplicación de un porcentaje sobre el presupuesto presentado por la entidad solicitante, cuando el coste total definitivo sea inferior al presupuesto inicial, será objeto de reintegro el eventual exceso de financiación pública que se produzca por diferencia entre los importes obtenidos por aplicación del citado porcentaje sobre el presupuesto inicial y el coste total definitivo.

3. El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de solo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la entidad beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al reintegro parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

   Cuando se hubiera resuelto un expediente de reintegro porque el gasto justificado fuera inferior al presupuestado, se comunicará dicha resolución a la entidad beneficiaria para que proceda a la devolución de los fondos excedentes que correspondan.

   La entidad beneficiaria deberá reintegrar en su caso, las cantidades recibidas y no justificadas, junto con el interés de demora.

4. Si en la realización de una comprobación o control financiero por parte de la Administración Foral se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o de parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gastuek osatzen duten proportzioaren araberakoa izango da dirulaguntzaren itzulketa.

5. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluak eta 38. artikuluak arautuko dute itzultzeko prozedura.

II.KAPITULUA

Dirulaguntzei buruzko arau-hauste administratiboak

50. oinarria. *Zehapen-prozedura.*

Dirulaguntzen Foru Arauaren IV. tituluan xedaturikoa aplikatuko da.

Aplikatzekoa izango da EAEko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko 1998ko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezartzen den zehapen-prozedura.

proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.

5. El procedimiento de reintegro se regirá por el artículo 37 y artículo 38 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

CAPÍTULO II

Infracciones administrativas en materia de subvenciones

Base 50. *Procedimiento sancionador.*

Resultará de aplicación lo previsto en el Título IV de la Norma Foral de Subvenciones.

Será de aplicación el procedimiento sancionador previsto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 87KN-01KK-UGTN-LBE2
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus